



LH-4. MAILA 5. UNITATE DIDAKTIKOA "Komunikabideak"



KOMUNIKABIDEAK-1: BEHATU ETA AZTERTU

Idatzi zure izena:



Hona hemen komunikabideetako lau arlo:

1.- Idatzi arlo bakoitzean, **zure ustez** esaldi bakoitza **EGIA** ala **GEZURRA** den:

	Musika taldeetako kide gehienak gizonak dira	
	Film gehienetan bikoteko gizonak emakumeak baino lan hobea du eta diru gehiago irabazten du	
	Oso zine-zuzendari emakume gutxi dago	
	Neskak, mutilak baino gehiago jolasten dute eta trebeagoak dira bideojokoetan	
	Sukaldari profesional ospetsuenak emakumezkoak dira	
	Gaur egun, munduko zenbait herrialdetan emakumeek ezin dute eskolara joan	
	Taller mekaniko askotan ez dute emakumerik kontratatzen	
	Besteen etxeak garbitzen lan egiten duten gehienak gizonak dira	
	Literatur Nobel ia sari guztiak emakumeei eman zaizkie	
	Emakume antzesle asko ez dute, adin batetik aurrera, lanik egiteko kontratatzen	
	Ipuin askotan amaordeak eta sorginak gaiztoenak dira	
	Emakumeek irabazi dituzte Bertsolari Txapelketa Nagusi guztiak	
	Gizonek eliteko kirolean aritzeko aukera gehiago dituzte	
	Kirol bereko txapelketetan, emakumeen finalak ordutegirik garrantzitsuena eta hoberena izaten du	
	Emakumeen kirol albisteak lehendabizikoak dira beti	
	Emakumezkoen kirol-taldeen jokalarien izenak gutxiago aipatzen dira, "taldea" edo "neskak" esaten da	

→ Emakumeek eta gizonek egiten dutenari balio eta garrantzi berdina eman.

→ Biztanle guztiek egunero bizitzaren esparru guztietan egiten dutena ikusi, balioa eman eta kontatu, ez soilik biztanleriaren erdiak egiten duena.